



Ibarrako plazaren atzealdean 47 etxebizitza aske eraikiko dituzte

ERAIKUNTZAK ▶ «Lanak urte honen amaieran edo hurrengoan hasiko dira», azaldu du Aburuzak

UDALA ▶ Hiri Antolamenduko Arauak «geldirik» daudela onartu du Txelo Romero alkateak ▶ 6

AMEZKETA ▶

Tsunami
izango du
gaur hizpide
Angel
Cuerdok

Kultur ekitaldiak
datorren ostiralean
bukatuko dira ▶ 3



Txotxongiloen Nazioarteko Eguna ospatu dute herriko gaztetxoek

TOLOSA ▶ Laskorain, Samaniego eta Hirukideko ikasleek Taun-Taun taldearen *Batuta* antzezlanaren izen zuten ikusgai atzo, Leidor aretoan. Ondoren, txotxongiloen munduan lan handia egin duen Takedaren pregoia irakurri eta txotxongiloak modu errazean nola egiten diren ikasi ahal izan zuten —beheko argazkian— Elena Lambarrik eskalari zien tailerrari esker. Gaztetxoek ederki igaro zuten eta panpin banarekin bueltatu ziren etxera. I. T. ▶ 4



TOLOSA ▶

Nikaraguaren aldeko Merkatu Txikiaren emaitzekin «gustura»

laz baino diru gehiago lortu dute,
«hainbat proiektu bultzatzeko» ▶ 7

ZIZURKIL ▶

Udalak bost milioitik gorako aurrekontua onartu du

Inbertsioetara %44a bideratuko dute ▶ 2

ZIZURKIL ▶ EKONOMIA

Udalak bost milioitik gorako aurrekontua onartu du

Aurrekontuaren %44a, azken aldiko kopuru handiena, inbertsioetara bideratu du

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak bost milioi eurotik gorako aurrekontua onartu du 2007. urterako. Horietatik 2.233.165 euro inbertsioen atalari dagozkie. Kopuru hori aurrekontu guztiaren %44a da, azken legegaldietan helburu horietara eskaintako portzentairik handiena. Esaterako, 2006. urteko aurrekontuek 921.980 euro bideratu zituzten inbertsioetara.

Gobernu taldeak «ezinbestekotzat» jotzen du inbertsioen atalean («parteko ahalegin bat egitea, Zizurkil herri aurreratu, moderno eta bizi-kalitate duna bilakatzeko jauzi garrantzitsu bat eman behar duen une honetan»). Urte askotan inbertsioak «arazo zehatzak eta puntuak konpontzera» bideratu ostean, aurtengo aurrekontua finkatzerakoan Udalak «herriaren ekipamendu eta zerbitzu berriak sortu eta zizurkilda-



Ubare auzoa eraldatzera bideratuko da inbertsioen parte bat. I. GARCIA

rreren ongizatea areagotzearen aldeko apustu garbia egin du».

Ubare auzoko eta Aurrera plazako jarduketak da Udaleko kontuetan aurreikusitako inbertsiorik adierazgarrienetarikoa bat, eremu osoaren birmoldaketa lanak egingo direlako bertan. Jarduketak hau 657.500 eurotan baloratu dute, eta Eusko Jaurlaritzak finantzatu du portzentaia handi batean, Izartu programaren bitartez. Lan-

da-bide batzuen konponketa, 151.000 euroko kostuarekin, eta Pagamuño auzoaren berurbanizatzeko lanak, 80.000 euroko aurrekontuarekin, dira, besteak beste, aurtengo gauzatzeko aurreikusitakoak.

Era berean, badira Udalak azpimarratzen dituen beste proiektu batzuk ere: herriko argiteria berritzea, Ihartzeko auzoko berrikuntzak, eta Ernio bidean eta Akezko auzoan ez-

pondak egonkortzea. Udaleko kontuek partida bat bideratu dute Udaltzaingoari lokal bat atontzeko, eta beste bat herriko plangintzako arau subsidiarioen berrikuspena egiteko.

Alabaina, «inbertsio ahalegin garrantzitsu» honek ez du zizurkildarren ekarpen ekonomiko handiagoa eskatuko, «Udalaren egoera ekonomiko onari esker eta gobernu taldeak dirulaguntza handiak lortzeko eginiko gestioei esker». Udaleko diru-kutxak «altxortegiaren egoera ona islatzen dute». Udaleko gestioek 400.000 euro baino gehiago eskuratzea lortu dute Eusko Jaurlaritzako Izartu programaren bitartez. Horri gehitu behar zaio udal jabetzako lokal baten salmenta, 33 eta 10 eremueta-ko hirigintzako aprobetxamenduek sortutako diru-sarrerak eta Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren ekarpenetik jasotako 1.479.065 euroak.

Babes ofizialekoak

Erredakzioa ▶ Zizurkilgo Udalak 33 Areako babes ofizialeko etxebizitzetan eta 10 Areako eraikuntza proiektuan interesa duten herritarrentzako informazio zerbitzua jarri du abian. Marian Lazkano Zizurkilgo Alkateak eta Pilar del Valle Udaleko abokatuek erantzungo die zalantzetan.

Area hauetarako proposatutako proiektuei buruzko galderak egiteko egunak gaur hasi eta hilaren 29ra arte aurreikusitako dira, 16:30etik 19:00ak bitarte. Atxulondon. Interesatuak hitzordua eskatu beharko dute, aurrez, 620 104751 telefono zenbakian, antolaketa arrazoak direla eta.

Zerbitzu hau apirilaren 2an hasi eta, apirilaren 2an irekiko da 33 Areako babes ofizialeko etxebizitzetarako zozketarako izena emateko epea. Udalak gogorazten du izena eman ahal izateko beharrezkoa dela Etxebiden izena emanda egotea. ◀

berria euskarazko zinemarekin

MARTXOAREN 24AN
KUTSIDAZU BIDEA, Ixabel

MARTXOAREN 31AN
Aupa Etxebeste!

filma DVD formatuan



+ 6,95€

Eskaera egiteko, martxoaren 16tik 31 arte, 943 30 43 45 telefonora deitu edo www.berria.info izena eman,

bi DVDak 11 euro

OHARRA: bitxikiak bakurako eskaintza

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ berria

KULTURA ▶

Loatzokoak Nafarroa Beherean

Erredakzioa ▶ Loatzoko musika eskolako 70 ikasle eta irakasle larunbatean Donapaleun (Nafarroa Beherea) izan ziren. Bertako musika eskolarekin elkartruke bat egin dute. Egun pasa egin zuten, Donibane Garazin bazkalduz, Donapaleu bisitatu eta emanaldia emanaz Gabi herriko elizan. HITZA



ANOETA ▶ GIZARTEA

Festa alternatiboetarako buruzko bilera, bihar

ERREDAKZIOA

Herri borondatearen aldeko festa batzordeak bilera antolatu du bihar, 19:15ean, udaltxean, herriko festen inguruan hitz egiteko. Bertara deitzen dituzte aurreko urteetan ekintza ezberdinetan aritu direnak eta orohar herritar oro.

Batzordetik azaltzen dutenez, EAJ-EAK Udala hartu zutenetik, «Udalaren jarrera baztertzalea eta Anoetarrok Auzolanean plataformako lau zinegotziren lapurreta salatze-ko herri borondatearen aldeko jaiak antolatu ditugu». Aurtengo herriko jaiak udal hauteskundeak igaro eta astebetere dira.

Batzordetik azaltzen dutenez, egoera berezia suposatzen du horrek: «Ordurako udal demokratiko bat, herritarrok hauteskundeetan bozkatutakoa errespetatuko duena, lortzeko aukera eta esperantza dugu». Bileran, beraz, egoera horri buruz hitz egin eta hartu beharreko jarrera erabakiko dute.

AMEZKETA ▶ KULTURA

Tsunamiaz ariko da gaur Angel Cuerdo

Kultur ekitaldiekin aurrera, gaur hitzaldia, eta hilaren 30ean 'Asto bat hipodromoan' saioa izango dute haurrek

NEREA URBIZU

Amezketako kultur egitarauari jarraipena emateko, gaur 20:00etan Angel Cuerdo tolosarrak prestatutako *Mekong ibaia*, *bizitza tsunamiaren ondoren* hitzaldia izango da, balioanitzeko gelan.

Datuen arabera 200.000 hildako izan omen ziren tsunami horren ondorioz. «Gertutik bizitza egokitu zitzaigun zoritxarrez», gogoratzen du Angel Cuerdo abenturazaleak.

Bambu izeneko irla batean egin zuten lehen geldialdia. Are zuriko hondartza, palmondoak eta ur gardenak... Eta «uretan geundela zerbait arraroa somatu genuen: uretan are mugimendu azkarra zegoen eta horzkada txikien moduan nabarmentzen ziren. Ezin pentsatu etortzekotan zegoenaren ondorioa izan zitekeenik».

«Ontziari bultza egitera gindoazenezan ikusi genuen lehen olatuaren etorrera. Olatu baten itxura baino, uholde baten antz handiagoa zuen. Hondartzan zeuden barku guztiak hankazgora jarri zituen eta gehiengoak hondoratuta geratu ziren».

Umeentzako, eskolatik

Amezketako kultur egitarauaren baitan, azken eguna hilaren 30a izango da. Umeei zuzendutako izango da, eta bi ekintzetan oinarrituko da

EGITARAUA ▶

Hauek dira Amezketako kultur egitarauaren baitan falta diren ekintzak, gaur eta hurrengo asteko ostiralean egingo direnak.

GAUR

20:00. Angel Cuerdo tolosarraren *Mekong ibaia*, *bizitza tsunamiaren ondoren* hitzaldia, balioanitzeko gelan.

MARTXOAK 30, OSTIRALA

15:00. Zumadi eskolan, *Asto bat hipodromoan* ipuin kontaketa. Umeen marrazkiak udaletxean izango dira eta liburutegian ipuinak. **Ondoren.** Merienda, hurbiltzen diren guztientzat.

dena. Zumadi eskolak zeresan handia izango du honetan, izan ere, haurrek marrazkiak eta ipuinak egin dituzte. Ipuin eta marrazki hauek udaletxean eta liburutegian izango dira ikusgai hilaren 30ean, jendeak txikien lanak ikus dezaten. «Ikasleek gaitasun bikaina erakutsiz sorturiko ipuinak eta artez egindako marrazkiak izan dira».

Egun berean, baina Zumadi eskolan eta 15:00etan, Bernardo Atxagaren *Asto bat hipodromoan* ipuin kontaketa izango da, oraindik zehazteke dagoen ipuin kontalariarekin. Modu honetan, «hiruhilekoari amaiera goxoa eta atsegina» emango diote, eskolakoek esan zuten bezala. Goxoagoa oraindik, ondoren izango den meriendarekin, noski.



Asto bat hipodromoan ezaguna da gurean: irudian, Amarozen. N. L.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. 943 44 48 66.

Garbitzaileak. Sukalde eta jangeletarako garbiketa zerbitzua. Interesatuak deitu 943 44 48 66ra.

ESKUALDATZEA

Loradenda. Erretiroagatik, loradenda eskualdatzen dut material eta guzti, Lasarten. Kokapen ezin hobea. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 626 10 56 89 telefono zenbakira.

BIDEGOIAN ▶

Andoni Zelaiaren epaiketara joateko autobusa

Apirilaren 24an Madrilén Bidegoiango Andoni Zelaiaren presoaren epaiketara egingo dute, 10:30ean. Egun horretan han egoteko, Bidegoiango Udalak autobus bat antolatuko du, astelehena, apirilaren 23rako, hain zuzen. Doan izango da, 16:00etan aterako da eta izena 659 942759 telefono zenbakian eman behar da, hilaren 30a baino lehen. Gaur Madrilén bertan pasako dute hotel batean, baina horren gastuez ez da Udala arduratuko.

ANOETA ▶

Ipuin kontaketa Udal Liburutegian, gaur izango da

Gaur osteguna, 18:15etik aurrera ipuin kontaketa izango da Anoetako Udal liburutegian. Lau eta zazpi urte bitartekoentzat da aproposa, eta kasu honetan Idoia Sanchez tolosarra ariko da ipuinak kontatzen. Beti bezala, bat baio gehiago kontatuko ditu ordu baten inguruan gutxi gorabehera. Galtzaundi euskara taldeak antolatutakoa da ekitaldi hau. Ohar moduan Anoetako Udalaren aldetik «puntualtasuna eskatzen da».

ERREMONTEA ▶

Baines Txapelketan gaur, eskualdekoak

Gaur Galarretan bigarren eta hirugarren partidetan Master Pacharan Baines txapelketako norgehiagokak jokatuko dira. Hauetan, eskualdeko hiruak ibiliko dira: Ezkurra-Martinez, Altuna I-Etxaberen aurka, eta hurrengoan, berriz Zeberio II-San Miguel, Altuna II-Urrutiaren aurka. 16:00etan hasiko da lehenengo norgehiagoka, Hernaniko Galarretan.



Altuna I.a Faustinin. I. O. /A. PRESS

Arratzain
Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 **Usurbil**

Oialume Zar
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 **Astigarraga**

Gartziategi
Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 **Astigarraga**

Iparragirre
Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 **Hernani**

Urbitate
Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 **Ataun**

Gurutzeta
Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 **Astigarraga**

Akelenea
Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 **Astigarraga**

Lizeaga
Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 **Astigarraga**

Elutxeta
Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 **Urnieta**

Rezola
Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 **Astigarraga**

Larre Gain
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 **Hernani**

TXOTX

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Irudietan. Eskualdeko herrietako irudiak ikusteko aukera ematen dizu gure webguneak. Horretarako *Irudietan* izeneko atalean sartu besterik ez duzu.



TXOTXONGILOEN NAZIOARTEKO EGUNA ▶

Ongi etorri txotxongiloen mundura!

Txotxongiloen Nazioarteko Eguna ospatu dute, 'Batuta' antzeulanarekin eta txotxongiloak egiteko tailerrarekin

IÑIGO TERRADILLOS

Txotxongiloen Nazioarteko Eguna izan zen atzokoa, eta nola ez, Tolosak mundu honekin duen lotura zuzena izanik era berezian ospatu zuen eguna. Izan ere, urteak dira Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia antolatzen dela herrian, eta hori gutxi balitz, laster martxan izango da Euskal Herria plazan kokaturik. Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa, munduan bakarretakoa. Argi dago, beraz Tolosak eta txotxongiloek duen erlazioa.

Hala, Laskorain, Samaniego eta Hirukide ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mai-

lako ikasleek Bergarako Taun Taun taldearen *Batuta* antzeulanaz gozatzeko aukera izan zuten Leidor aretoan goizean goiz. Tren geltoki batean male-tadun gizonetako bat dago bere batuta preziatua eskuan duela; bere lagunari utziko dio eta musika eta argien bidez mundu ikusgarri batera eramaten ditu ikusle gazteak. Azkenean biak elkarrekin batutarekin munduan barrena ibiliko dira. Horixe izan zen gaztetxoek ikusi zuten antzeulanaren istorioa.

Jarraian, txotxongiloen munduan lan handia egin duen Sennosuke Takedaren pregoia irakurri zuten, eta hori amaitzearekin txotxongiloen taile-

rrean murgildu ziren ikasleak. Nazioarteko Zentroa kokatuko den Euskal Herria plazan egitekoa bazen ere, gaztetxoek Leidorren bertan eta ikastetxetan ikasi zuten txotxongiloak nola egin daitezkeen. Elena Lambarrak egin zuen gidari lana, eta han izan ziren Migel Arretxe UNIMAKo (Txotxongiloen Nazioarteko Elkartasuna) lehendakaria eta baita Tolosako Ekinbide Etxeko kideak ere ikasleak egiten ari ziren lana gertutik ikusiz. Hauek, berriz, ederki igaro zuten goiza. Antzerkiarekin gozatu ederra hartzeaz gain, euren eskuetara txotxongilo bat egin ahal izan zuten. Horretarako norberak margolak eraman zituen eta panpina osatzeko ping-pong pilotak, makilak eta tela zatiak izan zituzten erabilgarri. Txotxongiloa osatu ostean, praktikan jarri eta antzerkitxoak ere egin zituzten, jolas moduan.



Ikasle ugari bildu ziren Leidorren eginiko tailerlean. I. TERRADILLOS

hitza Harpidedunen txokoa

HITZAko harpidedunen artean eutsi! filma ikusteko 2 harpidedunentzako bina sarrera zozketatuko ditugu!



Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara:
943 65 56 95

zorte on!

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



Buru pintatu, makila jarri eta ondoren, ilea eta arropa... eta antzezteko prest dago txotxongiloa. I. TERRADILLOS

ERAKUSKETA ▶



«Jende ugari bada ere, aurkituko duzu ezaguna zaizun begiradaren bat eta zerbait gogorazariko dizun irribarreraren bat». J. R. LLAVORI



«Sortutakoaren handitasuna aurrean duzula, horren zati zarella jakin eta poztu zaitez. Begirada lasaia duten zure begiek harekin topo egitera eramango zaituzte». JUAN RAMON LLAVORI



«Eguzkia ikusteko ez da lanpararik behar, haren argiak gidatuko zaitu». J. R. LL.



«Dena estaltzen duen zerua horregatik harropuzten bada, zu, hain hutsal eta ziztrin, zergatik bai». J. R. LLAVORI



«Edan ezazu isiltasunaren ibaietatik, itzal ezazu gorrotoaren su madarikatua, utzizazu otoitzari arimatik irteten». J. R. LLAVORI



«Ezin badu ukitu ez dago sentsaziorik. Bat egin dezatela zure esku-hurrek. Bakea aurkitu nahi baduzu». J. R. LLAVORI



«Begirada bat ekaitza baretzeko gauza da, baina baita handiagotzeko ere». J. R. LLAVORI

JUAN RAMON LLAVORI ▶ ARGAZKILARIA

«Lurralde baten sari berezia da jendearekin egotea»

Amalur jardunaldien baitan ikusgai da Llavoriren erakusketa

ESTI EZEIZA

Amalur jardunaldien baitan, Juan Ramon LLavoriren (Zumaia, 1956) *Las miradas de la tierra* argazki erakusketa ikusgai da, apirilaren 14ra arte. Hala patsadaz eta denborarekin argazkiez gonbidatzera deitzen du argazkilariak.

Nepaleko herritarrek irudikatu dituzu bakarrik.

Niretzat mundu honetan garrantzitsuenak pertsonak dira. Lurralde baten sari berezia da jendearekin egotea. Gauzarik politena eta ederrena da argazki onenaren bila objektibotik begira egiten duzun denbora hori.

Begiradak islatu dituzu.

Niretzat garrantzi handia dute. Gizakiak begiradarekin naturarekiko duen lotura adierazten du. Eta haiek lotura hori oraindik ez dute galdu, baina guk pixka bat galdu dugu. Hemen ematen du begiradak zahartu xamarrak daudela, dena ikusi dutela. Berainak berriz horrek bereizten ditu, begirada berezia dute naturarekiko lotura ere handia baitute.

Nolakoa da haien begirada?

Begirada oso berezia da, oso irekia. Guk bizitzeko baliabide gehiago baditugu ere beste gauza asko dauzkate. Dena den, nire argazkiak begiratzean norbaitek pobrezia ikusten badu, ziurrenik, pobrezia bere barruan egongo da.

Nolakoa da Nepaleko jendea?

Maitagarria benetan. Beraieneztat kanpotik doan jendea mi-



HITZA

rari baten antzekoa da, eta dena ematen dizute ezerezen truke. Gainera, nahiz eta estatusunean egon, pozez bizi dira.

Zer daukagu beraiengandik ikasteko?

Lehenengo gauza, errespetua, ez dira haserretzen. Bestetik, pazientzia, hurbiltasuna eta etxeko giroa. Ezeren truke dena ematen dizute. Nik uste dut lehen Euskal Herrian jarrerara hori bazela. ◀

15. *aek*
korrika badator!

MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era

KARRANTZA IRUÑEA 2007

heldu

ELKARLANARI
LEKUKOARI
HITZARI
EUSKARARI
HERRIARI

IBARRA ▶ ELKARTASUNA



Misio Taldeak Indira egindako bidaian ateratako argazkia. HITZA

Aste Misiolariaren balorazioa egin dute

Ibarratik Misio Taldeak «hazi solidariora ereinez jarraituko duela» adierazi du

A. IMAZ

Ibarratik Misio Taldeak antolatutako Aste Misiolariaren igandean amaitu zen. Bost ekintzen inguruan bildu ziren antolatzaile eta partaideak. Behin amaitu eta gero, balorazioa zabaldu nahi izan dute, «erantzun zoragarriagatik, eskerrik onenak» emanaz.

Duela sei urte hasi ziren Aste Misiolaria antolatzen helburu zehatz batekin bultzatuta. «Hirugarren Munduan bizi diren senide behartsuekiko sentiberatasuna bizkortu eta zabaltzeko» asmoz, hain zuzen ere. Aurtengoan, bost ekintza burutu dituzte aste guztian zehar eta horietan «pobreekin eta pobrezia-aren aurka lan egin duten bost lekuko eder» entzuteko aukera izan omen dute.

Bost lekuko eta bizipen

German Alzueta, apaiz donostiarraren hitzaldiarekin ekin zion Aste Misiolariari, Ekua dorren ia 50 urtetan bizitako esperientziak kontatu zituen.

Ibarratik Misio Taldekoen esanetan, «bere hitzen pisua ikusgarria izan zen gure esku zabaltasuna birplanteatzeko».

Kalkuta Ondoa talde donostiarrak, «ekintza apal baina biziaz, Kalkutako behar-tueneren alde egiten ari diren» lana aurkeztu zuen. Ostegun-ean berriz, *Zero Pobrezia* kanpainaren nondik norakoak azaldu zituzten Kultur Etxean eta aste egunekin amaitzeko, ostiralean afari solidarioraren txanda iritzi zen. Ibarratik Misio Taldekoen esanetan, «otordu apal baina senidetatsunean, harreman zoragarria ospatuaz».

Bostgarren eta azken ekitaldia, igandean egin zuten. Parroki Elkartearen *Eukaristi Misiolaria* burutu zuten, Santa Rosan (Ekuador) misiolari dagoen Joxe Mari Garmendia apaiz ibartarra eta Emeterio Sorazu, San Bartolome elizako parrokoa «eragile» zirelarik.

Azkenik parte hartu duten guztiei «eskerrik onenak» eman dizkie Ibarratik Misio Taldeko kideek.

IBARRA ▶ HIRIGINTZA

«47 etxebizitza aske» eraikiko dituzte plazaren atzealdean

«Udaleko Hiri Antolamenduko Arauekin lanean jarraituko duela» esan du Txelo Romero Ibarrako alkateak



«47 etxebizitza aske inguru» egingo dituzte plazaren atzean dagoen lurzoru honetan. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Ibarrako plazaren atzealdean AU7 (Aktuazio Unitatea) lurzoru, «47 etxebizitza aske eraikiko dituzte», hau da, gaur egun Etxebizitza Merkatuak ezartzen duen prezioan. Lurren jabe ezberdinak elkarrekin «ados» jarri dira eta Epergain Eraikuntza eta Promizioak S.L. enpresak burutuko ditu lanak.

Pedro Aburuza enpresako partaide eta eraikuntzarako erabiliko den lur porzentaiaren baten jabe denak, aste honetan plaza inguruko bizilagunei jakinarazti dienez, «urte honen amaieran edo hurrengoan» hasiko omen dira lanak egiteko

lehen pausoak ematen. Ibarrako alkatea den Txelo Romerok (EAJ) ere, proiektu hau baieztatu egin du, nahiz eta lanekin noiz hasiko diren ez jakin ziurtasunez.

Hiri Antolamendua, geldirik

Udalak lehengo urtean Hiri Antolamenduko Arauak biltzen zituen dokumentua amaitzeaz zuten; honen arabera, Ibarran eraikiko liratekeen etxebizitzaren %50 askeak izango lirateke, merkatuko prezioan hain zuzen ere. %20 babes ofizialekoak eta %30 tasatuak, hau da, babes ofizialean sartzeko baldintzak betetzen ez dituztenentzat, irabazi handiegiegia dituztelako baina aldi berean, askeak erosteko zailtasunak dituztenentzako zuzenduak. Udalak ordea, Arau hauek aurrera ateratzeko ez zuten ados-

tasunik lortu. «EA eta EAJren arteko haustura neurri batean gai honengatik» izan zen. Txelo Romeroren esanetan, «EAK transparentzia gutxiarekin jokatu du arauen inguruan, gauza gehiago edo beste gauza batzuk eskatu bait zituzte».

Partidu politikoen arteko adostasun ezak lehenik eta gaur egun Madrazoren legea bezala ezaguna denak, Babes Ofizialeko Etxebizitza porzentai %20 baino altuagoa eskatzen duen legeak, Ibarrako Hirigintza Arauak geldirik utzi ditu. Hala eta guztiz ere, Txelo Romerok esanetan, «dokumentua oraindik Udalaren esku dago». 2007. urteko aurrekontuetako Agurraren berriz, Ezke Batua eta Eusko Alderdi Jeltzaleak batera aurrera ateratako aurrekontuetan, joan den urtean Arauak onartzeko adostasunik egon ez zen arren, «lan garrantzitsu horrekin jarraituko» dutela jakinarazten du, «dirigarratasuna hobetzeko aldaketa puntualekin», besteak beste «Gurutzeaga inguruan, Otarreagan eta Appata Errekan hobekuntzak egin nahi baitira. Honetaz guztiaz gain, Guridin igogailu bat jarriko da inguru horretako irizgarritasuna hobetzeko asmoz». Hauek dira aldaketa nagusiak.

HITZA jaso eta abantaila guztiez gozatu nahi baduzu...

Egin zaitez harpidedun!
 egunkaria +
 beherapenak +
 zozketak...

Egunkaria buzoian jasotzeko utzi alariko gutza ondorengo puntuetan:

TOLOSA
 HITZaren egotza
 Araba etorb, 5 behea

LEITZA
 HITZaren egotza
 Herriko plaza, 1

1.- BETE ETA RAMAN / BIDALI BEHEKO HELBIDEETAKO BATERA:
 TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Araba etorbidea, 5 behea - 20400 TOLOSA edo Herriko plaza 1 - 37880 LEITZA. Nahitaezkoa da datu guztiak betetzea

► Izen-abizenak: _____ ► NA: _____
 ► Lanbidea: _____ ► Jaioeteguna: _____
 ► Helbidea: _____ ► Herria: _____
 ► P.K.: _____ ► Tel.: _____ ► mugikorra: _____
 ► Peletronikoa: _____
 ► Korntu zenbakia: □□□□□□□□□□□□□□□□□□□□

2.- TELEFONO BIDEZ ere eman ditzakezu zure datuak:
 Bezero arreta zenbakia: **902 82 02 01** (Asteegunetan 08:30-20:30 Larunbatetan: 09:00-13:00)

Abontarri 1 eta 15399 leku. Osteguna, Donostiako Herriko. Nahi, jakinarazteko, zure datu pertsonal. TOLOSA HERRIKO BIDERAK. Eusko Herriko antolatzaile baten gaitasun dute, eragile dute antolatzaile batenak. Zure datuak babesteko, eraberritzea, eraberritzea eta beste erabilera eraberritzea, nahi, eraberritzea, eraberritzea, TOLOSA HERRIKO BIDERAK, S.L. Araba etorbidea, 5 behea - 20400 Tolosa eta leitzaldekoak.

EZBEHARRA ▶

Bi lagun pozoindu dira karbono dioxidoagatik

Tolosako Asuncion erietxera eramán zituzten gasa arnastu zutelako

ERREDAKZIOA

Argindar generadore batek karbono monoxidoa isuri zuen Alkizako baserri batean, eta bi lagun —74 urteko gizonetako bat eta 71 urteko emakumezko bat— pozoindu dira hura arnastuta.

Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak azaldu duenez, goizeko seiak aldera ondoezik, zorabiatuta, sentitu zirelako anbulantzia joan zen baserriraino, suhiltzaileek lagunduta. Hara iristean, isuria beheko solairuan zegoela konturatu ziren, argindar generadore batek eraginda. Aipatutako bi lagunak lehen solairuan zeuden, baina haraino iritsi zen gasa. Tolosako Asuncion erietxera eramán zituzten biak, ondoezik. Zenbatarainoko larritasuna duten ez dute argitu.

GIZARTEA ▶

EHNA egiteko aukera etzi Tolosan eta Villabonan

ERREDAKZIOA

Etzi, larunbata, Villabonan eta Tolosan EHNA tramitatze-ko aukera izanen dute herri-tarrek. Villabonan, 12:00etatik 14:00etara egin ahalko da eta Tolosan berriz, egun guz-tian zehar.

TOLOSA ▶ ELKARTASUNA

Merkatu Txikian iaz baino diru gehiago lortu dute aurten

Lorturiko dirua Nikaraguako Malpaisillon antolatuta dauden 85 emakumeri alfabetatzen laguntzeko bideratuko dute



Merkatu Txikiko postua. ANDER SORONDO

NAIARA GARZIA

Nikaraguari laguntzeko egin-dako Merkatu Txikian 4.200 euro lortu dituzte eta kantitate honek Nikaraguako Malpaisillon antolatuta dauden 85 emakumeentzako alfabetatze eta nekazaritzako prestakuntza proiektua aurrera eramatea du helburu.

Hamabigarren urtea da Amarotzko Auzo Elkarteak Merkatu Txikia antolatzen duela, eta Joxepi Artolak, Auzo Elkarteko kideak, dioen bezala, «inoiz ez da behar den adina diru biltzen, baina aurten nire ustez askoz hobeto ibili gara. Txorizo eta txokolata ere jarri genuen egunero eta horrek ere askoz gehiago bildu da».

Aurten, merkatua beste urte-etan antzera joan da jende aldetik. «Batzutan jende gehiago izaten da, beste batzuetan, gu-

tzea izan du helburu, baina Nikaraguaz gain, beste hainbat lurralderentzako ere lanean aritu dira. «Nikaraguarekin lau urte daramatzaugu. Aurrena urtero herrialde ezberdinak egiten hasi ginen. Orain, berriz, lau urte daramatzaugu Nikaraguarekin eta oraingoz ez dakit proiektu honekin jarraituko dugun ala ez».

Harreman sendoa

Nikaraguako proiektuari dagokionez, merkatuaz gain, urtean zehar haiekin harremanak mantentzen dituzte. «Andoainen bada emakume bat han hoge urte daramazkiena, eta apirilean etorriko da. Bere bidez egiten dugu dena: Kutxaren bidez bidaltzen dugu dirua hango banketxe batetara eta berak egiaztagiriak bidaltzen dizkigu. Honela dirua hara ondo iristen dela ziurtatzen dugu», dio Joxepi Artolak.

Hartu-eman honen berri emateko, merkatuan bertan kartelak jarri dituzte aurten, Nikaraguako emakume hauek idatzitako gutunekin, «irakurtzen eta idazten ez zekitenak zenbat ikasi duten azalduz». Honetaz gain, «herriko emakume batzuk ere han izan ziren eta oso gustura etorri ziren han ikusitakoarekin».

Joxepi Artolak hamar urte daramatza Nikaraguaren aldeko Merkatu Txikia antolatzen, eta merkatuari etorkizun luzea ikusten dio. «Gehien kostatzen dena jendea inplikatzeko da. Lan gehien hor egin behar izaten dugu».

txiagi. Gainera, egun batzuetan gauza batzuk gehiago saltzen dira, baina orokorrean ondo joan da. Eguraldiak ez du gehiagi lagundu, bizpahiru egunetan euri zaparradak egin baititu, eta hori nabaritu da».

Ohiko merkatuaz gain, uste-kabeko kutxa batzuk jartzen dituzte, jendea anima dadin. «Hauen bitartez jendearen borondatea neurtzen dugu».

12 urte lanean

Merkatu Txikiak astebete inguru irauten du, baina alde zurrerik lan dezente egin behar izaten dute antolatzaileek. «Jendeak gauza asko ekartzen ditu, liburuak, arropak...batzuk ondo egoten dira, beste batzuk ez hain ondo. Aurretik lan pixka bat egin behar dugu».

Hamabi urtez antolaturiko merkatu honek beti dirua bil-

TOLOSA ▶

Mariana Fernandezek hitzaldia gaur

Mariana Fernandezek, Argentinako Udalbiltzaren Euskal Diasporako kideak, hitzaldia emango du gaur Tolosako Udaletxean, 20:00etan. Fernandez emigrazioa prozesuaren eta euskal diasporaren inguruan mintzatuko da.

TOLOSA ▶

Etorkinei buruzko hitzaldia bihar, Inmakuladan

Bihar *Etorkinak eta generoak* hitzaldia emango dute Inmakulada ikastetxean. Gizar-tearen aldaketan ondorio zuzen honen inguruko hitzaldia goizean izanen da, 11:30etik aurrera.

TOLOSA ▶

Formazio Eguna igandean, Hirukiden

Hirukide Jesuitinak ikastetxean Formazio Eguna burutuko dute igandean. Egun horretarako ekitaldi hauek antolatu dituzte: etorkinen inguruko hitzaldia, hamaiketako, otoitza, bazkaria, eta arratsaldean, kirol saioa.

TOLOSA ▶

'Grizzly man' dokumentala Leidorren

Gaur Zine-forumean *Grizzly man* dokumentala emango dute Leidorren 19:45ean eta 21:45ean. Werner Herzogek Timothy Threadwellen bizimodua azaltzen du. 13 urtez hartzeekin bizi ondoren, hartz batek hil zuen.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Amezket. Angel Cuerdo Galarragaren *Mekong ibaia*, *bitza* tsunamiaren ondoren proiektzioa izango da balio anitzeko gelan 20:00etan.
Berastegi. Etzi Ultzama-Larraun bailarara irteera antolatuta du Gaztainondo jubilatutako elkartek. 9:30ean aterata, museo eta kobazuloa bisitatu eta bazkaria izango dute. Izen-ematea, elkartearen zuzendaritzan.
Bidegoian. Apirilaren 24an Andoni Zelaia presoaren epaiketa izango da Madrilen, 10:30ean. Udalak autobusa doan antolatuta du apirilaren 23rako, 16:00etan. Izena 659 942 759 telefonoan eman behar da martxoaren 30a baino lehen.
Ibarra. Udalak eta Uzturpe ikastolak gurasoentzako tailerrak antolatuta ditu, arazoei nola aurre egin aztertzeko. Izen-ematea, udal txokoaren Gizarte Zerbitzuetan.
Tolosa. II. Amalur jardunaldien barruan, Victoria Subirana (Vicki Sherpa) irakasle Nepal eta egun esperientzia honen dibulgazio lanetan diharduenak, *Una muestra en Katmandu* hitzaldia emango du Zerkausian 20:00etan.

ZINEMA

Tolosa. Werner Herzog zuzendariaren *Grizzly man* filma emango dute zine-forumean Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN ERREPASOA, elkarrizketak, agenda, lehiaketak, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitzeko esanen eta irizien erantzukizunik.



Loreak elurrekin esnatu ziren atzo. n.l.



Belauntzatik gora errepideak zuri-zuri agertu ziren. A. IMAZ

Udaberria zuri-zuri

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Negua eguraldi hotz eta bustiarekin agurtu da; gure bi eskualdeak gogor astindu ditu, haize bolada gogorrekin eta elurrarekin



Tolosako ikuspegia: Uzturre elurtuta eta kaleko aranak loreekin. N. LATABURU

ERREDAKZIOA

Aspaldiko negurik beroena kazkabarrarekin, haize bolada gogorrekin, hotzarekin eta zuri-zuri eman dio paso udaberriari. Hala, gogor jo ditu eguraldiak gure bi eskualdeak eta desatsegina izan dugu azken hiru egunetan. Iragarpenen arabera, aste osoan iraungo du eta ondoren euri jasek hartuko dute lekukoa. Udaberriaren islada izan ohi diren lore, epeltasun eta txorien kantuek apur bat itxaron beharko dute, beraz.

Paisaia eta egoera ikusgarriak utzi ditu eguraldiak kostaldean zein barnealdean. Haatik, arazoak ere sortu ditu. Besteak beste, A-15a kamioiei itxi zuten atzo eta Urrakiko portua ere itxi egin zuten. N-1 errepidean ere istripu eta auto ilara luzeak sortu dira azken egunetan, gure eskualdeko herrien altueran. Egutegian udaberria azaltzen bada ere, pittin bat gehiago itxaron beharko du eguzkiak gogorrigo berotzen hasteko.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Pili Esmola (Ibarra).
 Zorionak eta muxu bat Lili, Maitane eta Kikeren partetik.



URTE ASKOAN
Saioa eta Iruke Arrospide Goikoetxeandina (Lizartza).
 Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu asko gure poxpolinei. Etxekoan partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrak...